



ataria

Aintzane Artola, bularreko minbizia feminismotik

Politika

Parte hartzeko 17 saio zehaztu ditu udalak Tolosatzen egitasmoaren barruan

Kultura

Tolosaldera ere iritsiko da 'Aralar, mundua leku den lurra' dokumentala

2018-10-19
943. zenbakia
107.6fm
www.ataria.eus

Zer esango zenioke
etorkizuneko zure ni-ari?

FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolakoa izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.

ADINBERRI
OSASUNTU ZAHARTZEKO
ESTRATEGIA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ



*Oria txartela erabili eta
Alamea jatetxean
otordu bikoitza irabazi*

AMANE
AMASA OKINDEGIA
BASAJAUN LIBURUDENDA
DUNA OINETAKOAK
eta OSAGARRIAK
EIZMENDI KIROLAK
GARAIZ LOREDENDA
MAGALI
MP BOUTIQUE
OPTIKA VILLABONA
SAHATSA BELARDENDA
TINTA

Erosketak urriaren 1 - 31 bitartean

Zozketa azaroak 1

*Oria bezero txartela erabiliz pillatu %1 honako dendetan



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Idea zaharrak, begi berriak

Ba al daki inork Lezo Urreiztieta nor zen? Martin Ugaldere liburua irakurri zutenez gain, seguruarik, inor gutxi. Zorionez, Josu Martinezek zuzendu duen film dokumentalak, *Jainkoak ez dit barkatzen*, existitu zen baina ia fikziozkoa dirudien pertsonaia bat berreskuratu du; halakoxea baitzen Lezo Urreiztieta (1907-1981) Santurtziko kontrabandista eta ekintzaile abertzalea; geruza askotako, ia heroien pareko. Ez dira harritzekoak, ez, Martinezek, dokumentalaren estreinaldiaren harira, elkarrizketa batean esandako hitz hauek: «AEBetan jaio izan balitz, ez dakit zenbat film egingo ziratekeen Lezo Urreiztieta». Pertsonaia askoz ere kaxkarragoetan oinarrituta egin izan dituzte AEBetan film edota telesailak, kontatuta dauden moduagatik sinesgarri eta gertuko egiten zaizkigunak. Lokala unibertsal bihurtzen maisuak dira. Eta beren ikus entzuzko produktuek mundu mailako banaketa eta hedapena daukate, jakina.

Euskal zinemagintza urrats esanguratsuak egiten ari den garaiotan (*Lasa eta Zabala*, *Handia*, *Amama*, *Oreina*, *Black is beltza*, besteak beste) eta telebista plataforma/kateek ehunka telesail eskaintzen dizkiguten honetan, ordea, paradoxikoki, euskaraz eginiko telesailak desagertu dira. Zer kontatu ez bage-nu bezala, edo, okerrago, gurean gidoilaririk ez balego bezala.

Tira, eta zer kontatzen digute telesail anglosaxoi arrakastatsuek?

Burdinezko Tronua lortzeko borroka dinastiko bortitzak. Duela hamar urte egindako droga delitu batengatik atxilotu duten Connecticuteko emakume-exekutiboaren kartzelako bizitza: lesbianismoa, AEBtako espetxe-sistema, sexu errepresioa, poliziaren ustelkeria, botere nagusikeria umore eta dramaren artean. Fisikan doktoreak diren bi gizonezko arazoak dituzte

Zerbait grabatzea eta hedatzea inoiz baino errazagoa den egunotan, orain arte fikzio mailan egindako ildoari jarraipena eman beharko lioke ETBk

besteekin erlazionatzerakoan, batez ere neskekin. Hogeitak urteko neska talde baten bizitza profesionala eta sentimentalaren nondik norakoak New Yorken. Gazte barnerako batek egunez segurtasun teknikari lanak egiten ditu enpresa informatiko batean, eta gauez, berriz, justizia zale zibernetiko bihurtuta, trama ilun batean murgildu da. New Yorkeko gobernadoreak luxuzko prostituta batekin izandako eskandalu sexualarengatik kargua galtzen dueneko. Goi klaseko judutar enpresari baten emazteak monologo aktore bilakatu

nahi du. Aita batek emakume transexuala dela jakinarazi dio bere familiari.

Asmamen ariketa bat eginez, eta euskal errealitatea abiapuntu edo inspirazio iturri hartuta, balizko telesailatarako argumetuen azaleko zerrenda bat egin genezake, buroa gehiegi hautsi gabe, bat-batean:

Gaztetxe edo gune okupatu batean kokaturiko eguneroko telesail bat. AHT-aren erakuntzak eragindako drama(k). Oinaztarren eta ganboatarren arteko leinu gerrak XIV. mendean. Erraustegiaren gaia fondoan duen thriller politikoa. Ignacio Lopez de Arriortua, Volkswagengo ingeniaria izan zenaren bizi-

tzan oinarrituriko telesail bat. 'Faisan' delako kasuari buruzkoa. Bilboko portuko garraiolarien bizitzetan oinarrituriko istorioak. Filologoen bizitza sexualen sakontzen duen umorezko saioa. Kuadrilla baten dekonstrukzio postmoderno. Inditex taldeko dendetan saltzaile direnen amesgaiztoak.

Bai; gurean ere errealitateak ehunka ideia ematen dizkigu eta hemengo partikularitasunetik abiatuta unibertsaltasunera irits litezkeen telesailak landu daitezke.

Sarearen eta digitalizazioaren garaian bizi garela kontuan hartuta, alegia, zerbait grabatzea eta hedatzea inoiz baino errazagoa den egunotan, orain arte fikzio mailan egindako ildoari jarraipena eman behar lioke ETBk. Lezo Urreiztieta guztiak harrien azpitik atera. Idea edota istorio zaharrak begi berriekin kontatu. Horixe baita beti erronka arlo guztietan, ideia zaharrei begi berriekin begiratzea, askotan guztia kontatua dagoela iruditzen arren.



YURRE UGARTE
GIDOILARIA ETA IDAZLEA

03

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albartzeketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gatzelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Itzea Urkizu Arsuaga

PELLO ERROTA SARIKETAKO FINALA, BIHAR

Asteasuko Iturri-ondon egingo da bertso afaria, bihar 21:00etan, eta afalostean bertsotan ariko dira Zizurkilgo eta Anoetako kanporaketetatik finalera sailkatutako lau bertsolariak: Lizaso, Azpiroz, Lazkoz eta Gaztelumendi.

Jon Miranda

Asteasuko Udalak eta Harituz bertsozaleen elkarguneak antolatuko dute sariketa, 25 urtetik gorako bertsolarientzat. Hamabi bertsolarik parte hartu dute, bi kanporaketetan banatuta, Zizurkilgo eta Anoetan. Lau onenek egin dute aurrera eta bihar Asteasun ospatuko den finalean ariko dira txapela nork jantziko.

Bertsolarien adin tarteari begiratzeaz gain, lurraldetasuna eta generoari ere erreparatu diote sariketako parte hartzaileak erabakitzerako orduan. Eskualdekorik ez da iritsi, ordea, finalera, ezta emakumerik ere, nahiz eta lauk hartu duten parte kanporaketetan. Hori bai, epaile taldea bi gizonetako eta emakume batek osatuko dute biharko finalean: Mikel Beloki berastegiarrak, Zigor Leunda billabonatarrak eta Elisa Iztueta zarauztarrak. Buruz burukora zein bi bertsolari pasako diren erabakiko dute eta bukaeran, txapeldunaren eta bigarren sailkatua-

ren izenak emango dituzte. Bertso onenaren Mikaela Elizegi saria ere emango dute. Pello Errota eta Mikaela Elizegiren ondorengoak presente izango dira biharko saioan.

Iker Iriarte izango da finaleko gaitzartzailea eta ondorengo lanak egin be-

ARGAZKIAK: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA



ASIER AZPIROZ
ZUBIETA
1991

1. Ondo iruditzen zait. Sariketa gehienek gazte-gazteenak behar luketela uste arren, zirkuitu horretatik kanpo gabiltzanok estimatzen ditugu horrelakoak.

2. Aitona asteasuarrak dut nik eta Pelloren bertsoak etxean aditu izan ditut, baita liburuetan eta abar. Bere garaiko bertsolari onenetarikoa izan zela bistakoa da.

3. Bertsotan ondo eta fresko egin nahi nuke. Giro ederra izango da ziur, eta ea ariketa guztietan lan oso xamarak osatzen ditudan.

harko dituzte bertsolariek: puntuagarria ez den hasierako agurraren ondoren, hiruna bertso bota beharko dituzte 8ko handian eta beste hiru 8ko txikian, hiru punturi erantzun eta sei puntuko motzean beste hiru bertso bota beharko dituzte. Bakarkakoan, gai banaren bueltan jardun beharko dute bi bertsotan. Segidan, ondoen aritu diren bi bertsolariek buruz burukoa jokatu dute: hamarrek txikian aritu beharko dute aurrea, puntuka ondoren eta hitz bati, neurri librean, bertso bat bota beharko diote amaitzeko.

Afaltzen 110 lagun izango dira Iturri-ondo jatetxean eta afalostean, 23:00etatik aurrera finala jarraitu nahi duenak bertaratzeko aukera izango du. Bihar amaituko da Pello Errota Bertsolari Sariketaren lehen edizioa. Antolatzaileek adierazi dutenez, aurrera begira, berriz antolatzeko aukera zabalik utzi nahi dute, «bertsoa sustatzeko beharra ikusten bada».



ENEKO LAZKOZ
ETXARRI ARANATZ
1983

1. Plazan aritzeko aukera askorik ez dugunok edozein dei gustura hartzen dugu. Gainera sariketaren saltsa hori gehitzeak beste grazia bat ematen dio. Nik opari bat bezala hartu dut parte hartzeko gonbidapena.

2. Ez ditut bertsolari zaharrak eta gehiegi ezagutzen. Txiritari bi alkan-dorena bota ziola eta gutxi gehiago dakit.

3. Bertsotan ahalik eta gehien gozatu nahi nuke. Hori lortuz gero nire maila onenetik gertu ibiltzea errazago izango da.

1
Nola ikusten duzu adin jakin batetik aurrerako bertsolarientzat sariketa bat antolatzearena?

2
Pello Errotaren inguruan zein erreferentzi dituzu zuk?

3
Zer erakutsi nahiko zenuke larunbateko Pello Errota sariketaren finalean?



BENAT LIZASO
AZPEITIA
1982

1. Oso ondo iruditzen zait sariketa hau antolatzea. Gazteek bakarrik ez dituzte plazak eta aukera faltak izaten.

2. Txirritaren bertso bikotea zela.

3. Bertso afari formatuan izateak ilusio berezia egiten dit. Bertsoan badakidala erakutsi nahi nuke.



UNAI GAZTELUMENDI
AÑORGA
1988

1. Gazte sariketen zirkuitua pasa os-tean zaila izaten da plazetarako saltoa ematea. Gure adin bueltako bertsolari askok ez dugu aukera gehiegi izaten.

2. Gure inguruan Txirritaren pasadizoak gehiago entzun izan ditugu, eta horietan askotan azaltzen zen Pello Errota bere kantu-kide eta lagun bezala. Bere erreferentzia badugu, baina bere bertso gutxi iritsi zaizkigu.

3. Azken urteetan plazan egin izan dudana hori egin nahi nuke. Saio bizi bat ahal dela, eta ideia freskoren batzuk utziz.



Liburuaren egileak, lana osatzeko lagun izan dituzten erakunde eta eragileetako ordezkariekin. J.M.

‘Sagardogile’ lana aurkeztu dute

Gipuzkoako 19 sagardogileren testigantzak bildu dituzte Joxemi Saizarrek eta Joseba Urretabizkaiak liburuan

J.M.

Sagardo ekoizleek historikoki egin duten lana aitortu eta transmisiorako tresna izatea da liburuaren helburua. *Sagardogile* argitalpenean elkarriketatuta dituzten sagardozale guztiak 65 urtetik gorakoak dira, emakume bat eta 18 gizon. «Tradizioa eta modernitatea uztartuz, artisau izatetik profesional izatera pasatu dira denbora gutxian», esan du Joxemi Saizar egileak. «Azken 40 urteetan galtzear zegoen tradizio bat berreskuratu, indartu eta modernizatu dute. Instalakuntzak hobetu dituzte, hozte sistemak sartu dituzte eta elaborazio eta botilaratzeak mekanizatu. Baserritar izatetik, upategia kudeatzera, komertzial, enpresari eta osalarri izatera pasa dira, lanbide asko ikasi behar izan dituzte oso denbora gutxian».

Saizarrek aitortu duenez, XI. mende-koak dira sagardoaren lehen aipamenak eta 1931n Gipuzkoan zortzi milioi sagardo litro ekoizten zituzten 800 sagardotegitan. 1967an, berriaz, 1,25 milioi litro ziren. «60ko hamarkadan ia desa-

gertzear egon ziren sagardotegiak eta pertsona hauek egindako lanari esker XXI. mendeko kalitatezko edaria da gaur egun sagardoa, mundu osoan ezaguna».

Tolosaldeko sagardogileak ere bai
Liburuan 19 sagardogile betetanoren testigantza jaso dute eta tartean dira Adunako Aburuzako Juan Jose Aburuz, Ikaztegiako Begiristaingo Jose Gregorio Begiristain, Tolosako Isastegi-ko Jose Mari Lasa eta Tolosako Eguzkitzako Rufino Cipitria. Liburuaren egileak aipatu duenez, liburuaren sarrera historikorako, beste tolosar batek, Jose Uria Irastorzak duela 40 urtetik gora idatzitako liburua hartu du oinarri.

Xibarit argitaletxeak eman du argitara *Sagardogile* liburua, 258 orrialde dituen eta argazkiz hornituta datorrena. Joseba Urretabizkaia edizio arduradunak aipatu duenez, «euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dugu eta hasiera batean mugatua izango da tiraldia, 500 ale baino ez ditugu atera».

Liburu dendetan eta Astigarragako Sagardoetxean egongo da salgai, eta hain zuzen, bihar toki horretan bertan egingo dute jendaurreko aurkezpena 12:00etan. Liburuan elkarriketatuta dituzten 19 sagardogileak eta haien inguru-rukoak gonbidatu dituzte ekitaldira.



Joseba Ormazabal zinegotziak eta Olatz Peon alkateak eman dute Tolosatzen egitasmoaren berri. I.G.L.

PARTE HARTZEKO 17 SAIO ZEHAZTU DITU UDALAK

Tolosatzen egitasmoaren aurkezpena egin du Tolosako Udalak, eta egingo diren saioak bi zatitan banatuko direla izango da aurtengo beritasunetako bat: batetik proiektuak, eta bestetik, 2019ko udal aurrekontua

Imanol Garcia Landa

Hirugarrenez Tolosatzen parte hartze egitasmoa martxan jarri du Tolosako Udalak, eta aurtur hainbat berrikuntza izango dira. 2016an herritarrekin bat Tolosaren Argazki Partekatua egin eta 2017an 2017-27 Plangintza Estrategikoa osatu ostean, 2017 eta 2018an aurrekontuei begirako proiektuak landu zituzten: 40 barneratu ziren 2017ko aurrekontuan eta 50 2018koan. Aurtur aukera izango da horretarako, baina baita jada Tolosatzenen sortu eta garatu diren proiektuetan parte hartzekoa ere.

Aurtur lehenengo aldiz parte hartze prozesuaren programazio bat osatu du udalak. Guztira 17 bilera zehaztu ditu, bi zatitan banatuta: garatutako proiektuen bilerak eta 2019 aurrekon-

tu parte hartzaileak. Aurrekontuari begirako plangintzan aldaketak izango dira, Olatz Peon alkateak azaldu duenez: «Iaz egindako bileren ostean jasotako iradokizunei jarraiki aurrekontu parte hartzaileen lanketa sektorialki egitea adostu da aurtengoan». Guztira zortzi alorretan banatu da, eta horien inguruko bilerak azaroan egingo dira.

Aurrekontuei dagozkien bileren aurretik, ordean, Tolosatzenetik eratorri eta 2019an jarraipena izango duten hainbat proiektuen saioak programatu dira. Horien berri eman du Joseba Ormazabalek, Herritarrekiko harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizarteko zinegotziak. Bilera horietako asko «parte hartze prozesu baten lehenengo bilera» izango direla esan du Ormazabalek, eta gogora ekarri du bilera guztiak irekiak izango di-

rela. Bide batez, eragileak parte hartzera gonbidatu ditu zinegotziak, eta baita herritar guztiak ere.

Bederatzi proiektu

Gaietako bat, berria dena, gazte ekin-tzailtza izango da. «Gazteekin eman-tzipazioa sustatzeko politikak diseina-tu nahi dira, eta diseinu horretan gaz-teak nahi ditugu barneratu, eta Tolosako eragileekin landu nahi da», esan du Ormazabalek.

Zumardi Txiki eta Oria ibaia da bes-te gaietako bat. «Azterketa bat egin da aurtur, ikusteko zer aukera izan ditzakegun herria Oria ibaiari begira jartzeko», azaldu du zinegotziak. «Aukera batzuk daude eta horien inguruan zer-bait diseinatze denbora beharko da».

Gizarte zerbitzuen alorreko elkarte-en arteko topaketa da beste gaietako bat. «Bigarren urtea izango da, eta aurtengoan berriro eragileekin eta herri-tarrekin ikusi nahi da zer aukera ematen dizkigun topaketak berak eta zer diseinu egin dezakegun helburuak betetzeko», dio Ormazabalek.

SAIOAK

SAIO MONOGRAFIKOAK

Tolosatzen prozesutik eratorritako hainbat proiektuei buruzko saio monografikoak:

Gazteen ekintzailatza. Urriak 22, 18:30ean, kultur etxean.

Zumardi Txiki eta Oria ibaia. Urriak 24, 19:00etan, kultur etxean.

Gizarte zerbitzuen alorreko elkarten arteko topaketa. Urriak 29, 19:00etan, kultur etxean.

Hezkuntza Mahaia. Azaroak 5, 19:00etan, kultur etxean.

Udal azpiegitura soziokulturalak. Azaroak 7, 19:00etan, kultur etxean.

Pump-track. Azaroak 7, 13:30ean, udaletxeko 4. pisuko bilera gelan.

Mugikortasun Plana. Azaroak 8, 11:00etan, Oriaburun.

Landa eremuko ibilbideak. Azaroak 8, 19:00etan, Oriaburun.

Beste gai berri bat Hezkuntza Mahaia da. «Ez da hezkuntza akademiko bezala hartzen, baizik heziketa komunitarioaren kontzeptuarekin», zehaztu du zinegotziak. «Tolosatzeneko lehen bileretatik bazegoen eskaera bat herri bezala eduki ditzakegun erronkei aurre egiteko baloreak lantzearena, elkar partekatu ditzakegun baloreak definitu eta heziketaren bidez nola bait erronka horiei aurre egiteko», esan du Ormazabalek.

Udal azpiegitura soziokulturalen inguruan egingo da beste saio bat. Ormazabalek esan duenez, «bada garaia ikusteko zer azpiegitura dauzkagun, eta zer egoeretan dauden, eta ea gaur egungo beharrei erantzun on bat ematen dioten».

Mugi Tolosa. Azaroak 9, 09:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

AURREKONTUA

2019ko aurrekontua lantzeko saioak:

Garapen ekonomikoa. Azaroak 12, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

Euskara eta hezkuntza. Azaroak 14, 19:00etan, Oriaburun.

Kirola. Azaroak 15, 19:00etan, Oriaburun.

Berdintasuna. Azaroak 15, 19:00etan, kultur etxean.

Ingurumena. Azaroak 19, 19:00etan, Oriaburun.

Gazteria. Azaroak 20, 19:00etan, Oriaburun.

Kultura. Azaroak 21, 19:00etan, kultur etxean.

Gizarte zerbitzuak. Azaroak 22, 19:00etan, kultur etxean.

Udalak ikerketa bat egingo du, eta lehen fasean emaitza batzuk azalduko dituzte, eta hortik «hasi beharko gara hurrengo urtera begira bai udalaren barruan bai kanpoan etorkizuneko Tolosa nola diseinatu ikusten».

Usabalgo hirugarren faseari dagoen gaia da pump-track deritzona. Kiroldegia ondoan dagoen espazio horrek zer aukera izan ditzakeen diseinatzeko proiektua izango da.

Mugikortasun plana da beste gaia ere. «Urtero martxan jartzen dena da, eta datorren urtera begira ikusi behar dugu helburuak betetzen diren, eta ea nola hobetu daitezkeen», zehaztu du zinegotziak.

Landa eremuko ibilbideak gaiaren bidez, «ibilbide horiek balioan jarri nahi ditugu, ez bakarrik horiek erabiltzeko helburuz, baita guk dugun ondarea balioan jartzeko», esan du Ormazabalek.

Mugi Tolosa urtez urte egiten ari den proiektua da. Peonek azaldu duenez, «parte hartzea izugarria da eta bere horretan mantentzea ezinezkoa da, buelta bat eman behar zaio. Hasieratik proiektu parte hartzaile bat denez, aldatu behar bada modu berdinean izan beharko da».

Aukera gehiago parte hartzeko

Parte hartzeko aukerak zabaldu egingo dituztela azaldu dute udaleko ordezkariak. Peonek zehaztu duenez, «aurten bide berriak ireki ditugu, jendeak ahalik eta gehien parte hartzeko. Proiektu aberatsa izan behar badu, parte hartze zabal bat dagoelako izango da».

Hori horrela, 17 bilera presentzialez gain, liburuxka bat helaraziko da Tolosako etxe guztietara prozesuaren berri eman eta etxetik herritar bakoitzak bere proposamenak luzatzeko aukerarekin. Liburuxkak proposamenak egiteko gune bat du, Tolosatzenen herriarrek ezarritako lau lan ildoaren esemarekin, eta orritxo hori bete eta herrian zehar dauden postontzietan utzi dezakete herritarrek: udaletxean, kultur etxean, Gorosabel eraikinean eta Usabal kiroldegian. Proposamenak internetez ere egin ahalko dira. Hain justu, formulario bat dago esku-ragarri liburuxkaren eskema berarekin www.udala.tolosa.eus/aurrekontuak2019 estekan.

ataria jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



64 pilotarik parte hartuko dute VII. Ogi Berri Migel Soroa Txapelketan. iNIGO TERRADILLOS

Igandean hasiko dira Migel Soroa jokatzeko

08

Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatuko dira partidak 16:30etik aurrera; finalak 2019ko urtarrilaren 20an jokatuco dira

Erredakzioa

Ogi Berri Migel Soroaren Oroime-
nezko Txapelketa igandean jarri-
ko dute martxan. VII. edizioa asteaz-
kenean aurkeztu zuten, eta bertan ira-
garri zituzten esku pilotarien izenak
eta txapelketaren egutegia. Hiru mai-
latan banatu dituzte pilotariak: jube-
nilak, etorkizunekoak eta eliteak. Par-
tidak Tolosako Beotibar pilotalekuan
jokatuco dira igandean eta finala urta-

rrilaren 20an izango da. 64 pilotari-
ren artean 11 partida jokatuco dira le-
hen ligaxkan. Ondoren finalerdien
txanda izango da, urtarrilaren 20an eta
13an. Partida horietatik aterako dira 12
finalistak.

Aurkezpen ekitaldian antolatzaile,
babesle, Tolosako Udal ordezkari eta
Migel Soroa pilotari ohiaren semea
egon ziren: Antxon Soroa. Anjel Mari
Peñagarikanok hiru bertso ere kantatu
zituen. Hauen ondoan protagonistak
egon ziren, hau da, txapelketa jokatu-
co duten pilotariak. Ekitaldiaren au-
rretik minutu bateko isilunea egin zu-
ten, Ladis Galarza pilotariaren ama
Mamen Lizartzen heriotzagatik.

Rollerski igoera eta mendi irteera

Anoeta Hernialde arteko
lasterketa larunbatean da,
eta txangoa igandean

Erredakzioa

Alpino Uzturre Elkartek aste-
buru honetarako bi eskaintza
prestatu ditu. Bihar, urriak 20, Her-
nialdera Rollerski Igoera egongo
da. Aurtengoa 18. edizioa izango
da. Irteera 16:00etan emango zaio
lasterketari, Anoetatik. Helmuga
Hernialdeko plazan egongo da ur-
tero bezala.

Rollerskia bi gupil dituen zati
metalikoa da. Iraupen eskiazaile-
ek, elurra iritsi bitartean, asfaltoan
entrenatzeko erabiltzen dutena.
Larunbatean 80 partaide inguru
espero dituzte Alpinokoek, besteak
beste, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa,
Aragoi eta Madril-etik etorriak.

Bestalde, igandean, urriak 21,
Iratiko Basoa ezagutzeko mendi ir-
teera egingo dute. Ibilaldia Orbai-
tzetatik hasi eta Elurretako Ama
birjinaren basilizan amaituko da,
Irabia urtegia inguratuz eta Lizar-
doia mendia igotzeko aukerarekin.

Autobusa, 07:00etan irtengo da
San Frantzisko elizatik. Izena ema-
teko info@alpinouzturre.eus -era
idatzi behar da, edota 943 65 27 89
telefono zenbakira deitu.

BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 20 • 11:00
Kadete 1. maila
BILLABONA FKE "B" - INTXURRE KKE

Larunbata, 20 • 15:45
Jubenil 1. maila
BILLABONA FKE - HERNANI CD

Larunbata, 20 • 18:00
Ohorezko jubencil maila
BILLABONA FKE - UROLA CD



saridunak

Atarikideentzat **bi sarrera pare**
ditugu

'**Aralar, mundua leku den lurra**'
dokumentalerako

- Ander Sarasola (Tolosa)
- Arantxa Urdangarin (Berastegi)

Urriak 24, 20:00etan, Leidorren.

Sarrerak lehiatilan egongo dira.

TALDE NAGUSIAK

Sala 2012

LAUBURUIBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
6. jardunaldia. Zaragoza,
larunbatean, 19:15ean.

LASKORAINIKASTOLA

Santurtzi

Areto futbola. Bigarren B Maila.
6. jardunaldia. Larunbatean,
18:45ean, Tolosako Usabal kiroldegian.

TOLOBOLEIBIDEBIDE

Gallartaren Ahotza BT

Boleibola. Bigarren Maila.
3. jardunaldia. Larunbatean, 12:00etan,
Tolosako Uzturpe Kiroldegian.

Bizkerre

TOLOSA CF

Futbola. Neskak. Euskal Liga.
7. jardunaldia. Larunbata,
16:00etan, Getxon.

TOLOSA CF

Oiartzun

Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko
Maila. 7. jardunaldia. Igandean,
16:30ean, Tolosako Berazubi estadioan.

TOLOSA CF 'B'

Euskalduna

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. 6. jardunaldia. Larunbata,
17:30ean, Tolosako Usabal kiroldegian.

Astigarragako Mundarro

BILLABONA KE

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. 6. jardunaldia. Larunbata,
16:00etan, Astigarragan.

Eibar

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Neskak. Ohorezko Erregional
Maila. 5. jardunaldia. Igandean,
16:00etan, Eibarren.

INTXURREKKE

Goierri Gorri

Futbola. Neskak. Gorengo Maila.
5. jardunaldia. Larunbatean,
15:45ean, Alegiako Elorri futbol zelaian.

Vasconia

INTXURREKKE

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
6. jardunaldia. Larunbata,
19:30ean, Donostiako Puion.

Euskalduna

DANENA KE

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
6. jardunaldia. Larunbatean,
19:00etan, Andoainen.

TOLOSA CF

El Pilar Maristas

Eskubaloia. Mutilak. Lehen Nazional
Maila. 5. jardunaldia. Larunbatean,
16:30ean, Tolosako Usabalen.

TAKEARALAR KIROLAK

Goierri Ayma

Saskibaloia. Neskak. Gipuzkoako
Seniorrak. 2. jardunaldia. Larunbatean,
16:00etan, Tolosako Usabal kiroldegian.

LARUNBATA URRIAK 20

AMASA

XXVI. MENDI DUATLOIA

15:30. Bakarka edo talde mistoan
ateratzeko aukera izango da. 4,18 kilometro
korrika, 17,7 mendi bizikletaz eta 2,4 korrika.
Izen emateko aukera kirolprobak.com
webgunean edo egunean bertan Amasan.

ANOETA-HERNIALDE

XVIII. ROLLERSKIIGOERA

16:00. Anoetako plazaatik irtengo dira parte



Rollerskiigoera jokatu da bihar. ATARIA

hartzaileak; Hernialdeko plazan egongo da
helmuga.

ORENDAIN

III. ELTXO TRAIL MIKEL

GARMENDIAREN OROIMENEZKOA

16:00. 21 kilometroko ibilbide luzearen
irteera.

16:15. 8,2 kilometroko ibilbide laburraren
irteera.

Izen ematea: Egunean bertan irteera
puntuan. Aurrez, herrikrosa.eus edo
eltxotrail.com webgunean.

IGANDEA URRIAK 21

IRURA

IPARRALDEKO LIGA,

AMETSA TRINKETAN

11:00. Joan den igandean jokatu ez ziren bi
xare partida jokatu dira igandean:

- Ametsa 03 (Eizagirre-Montero)/
Hardoyrarrak 01 (Angelu).
- Ametsa 01 (Huarte-Iturbe)
/Hardoytarrak 01.

TOLOSA, BEOTIBAR

VII. OGIBERRI MIGEL SOROA

PILOTA TXAPELKETA

16:30. Hiru esku pilota partida:

- Igoa-Ganboa/Altuna-Erkiaga.
- Sein-Garmendia/R. Larramendi-
Aizpitarte.
- Zubizarreta-Garmendia/A. Etxebarria-
Uriondo.

TOLOSA

ALPINO UZTURREREN

MENDI IRTEERA

07:00. Iratiko Basoa ezagutzeko aukera.
San Frantzisko elizatik irtengo dira.

ASTELEHENA URRIAK 22

TOLOSA, BEOTIBAR

LAU ETA ERDIKO TXAPELKETA

16:30. Esku pilota. Hiru partidako jaialdia:

- Elordi-Erostarbe/Ugalde-Jaunarena.
- Bengoetxea VI-Retegi BI.
- Mendizabal III-Zabaleta/P. Etxebarria-
Rezusta.

Eskolara buelta

Hiru kasutik batean, eskola porrotak lotura izaten du ikusmen arazoekin

NOLA HAUTEMAN:

Ikusmena funtsezko zentzumena da haurren garapenean, eta ikasturte hasiera unerik onena izaten da, seme-alabei ikusmen azterketa bat egiteko. Pediatren arabera, urtero egin behar izaten da, 3-4 urtetik aurrera.

Haurrek ez dute bere ikusmen arazoen kontzientziarik izaten eta, beraz, ez dira kexatzen. Horregatik, oso garrantzitsua da bere ikaskuntza prozesua oztopa dezaketen zenbait jarrera erreparatzea.

- **Irakurtzerakoan nahastu edo esan gabe uzten ditu letrak/hitzak.**
- **Kopeta zimurtu, burua eta lepoa okertu** edo **begiekin keinu** egiten du gertutik edo urrutitik zerbaiti begiratzerakoan.
- **Begiak gorritu** eta **betazalak igurzten** ditu sarri irakuri edo idaztean.
- **Buruko mina** izaten du.
- **Estropezu egiten du erraztasunez** eta ez ditu distantziak ondo kalkulitzen.

Kontuan hartu behar da, haurrek ikusmenaren bitartez prozesatzen dutela ikaskuntzaren %80; hainbat ikerketak zuzenean lotzen dute ikusmen txarra, eskolako errendimenduarekin.

Ikusmenaren zorrotasunaz gain, garrantzitsua da bestelako arazoak –begi nagia edo estrabismoa, adibidez– ere hautematea, ahalik eta azkarren tratatu eta zuzendu ahal izateko.

NOLA SAIHESTU:

Balizko ikusmen arazoak hautematearekin eta zuzentzearekin batera, ezinbestekoa da gaztetxoenen begiak behar bezala babestea.

Izan ere, haurren begiak helduenak baino ahulagoak eta iragazkorragoak dira argiaren aurrean: beren begi niniak dilatatuagoak egoten baitira eta kristalinoa gardenago.

Horregatik guztiagatik, **ezinbestekoa da UV altua duten eguzkitako betaurrekoak erabiltzea**. Gainera, gure seme-alabak garai digitalean hazten ari direnez, bereziki gomendagarria da **pantailak, mugikorrek nahiz tabletek ematen duten argi urdin-morea blokeatzeko tratamendu bereziak dituzten lenteak erabiltzea**.

MULTIOPTICAS GIPUZKOA-n mundu mailan liderra den Essilor lente fabrikatzailearekin egiten dugu lan. Horrela, gure bezeroei lente eta tratamendu onenak eskaintzen dizkiegu, arazoak arintzeko eta gaztetxoenen begiak babesteko.

SCHOOL VISUAL TEST metodo propioaren bitartez, haurraren ikusmena behatzen dugu, sakontasunez, azterketa zehatza eginez:

- **Graduazioa.** Miopiarik, hipermetropiarik edo/eta astigmatismorik ba ote dagoen ikusiko dugu.
- **Ikusmen binokularra.** Bi begiekin modu koordinatuan lan egiteko gaitasuna zenbaterainokoa den aztertuko dugu eta, horrela, estrabismorik ba ote dagoen edo ez ikusi.



• **Stereopsia.** Hiru dimentsiotan ikusteko gaitasuna aztertuko dugu.

• **Kolorimetria.** Daltonismorik ba ote den aztertuko dugu.

• **Begiaren mugikortasuna.** Begiaren mugimenduak aztertuko ditugu, oso garrantzitsua baita irakurketarako.

• **Begiaren osasuna.** Kornearen, kristalinoaren nahiz erretinaren egoera aztertuko dugu.

• **Begi niniak.** Arazo neuronalak hautemateko garrantzitsua da.

Geure saltokietan profesional adituak, punta-puntako teknologia, betaurreko aukera zabala eta merkatuko lenterik onenak eskuragarri izango dituzu.

Eskola itzulerarako ikusmen ona izaten lagunduko dizugu!



SCHOOL VISUAL TEST

egiteko deitu eta
hartu hitzordua

11

Konsultatu itzazu zure optikari lanpainaren ezaugarriak. RPS. 175/15 I.L.G.
Ezingo da beste eskaintza batzuekin erabili.

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia

Erreflexuen aurkako
2 mó graduatu
99€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

www.multiopicasgipuzkoa.com



San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Tolosaldeko IKT Astearen 10. edizioa urriaren 22tik 26ra

2009az geroztik udazkeneko ospatu ohi den bezala, aurtengoa ere IKT Astea ospatuko da datorren astean zehar. Informazio eta Komunikazio Teknologiaen duten eragina, bai lan munduan bai bizitzan pribatuan ere gero eta nabariagoa dela kontuan izanda, talde desberdinei zuzendutako prestakuntza saioek osatzen dute IKT Astearen edukia.

Apataerrek industria gunean kokatuta dagoen LEHIBERRI Zentroan, goizeko ordutegian antolatutako saioak, batik bat industria sektoreari interesa lekitzeko, aldiz eguerdiko ordutegian Tolosako erdigunean kokatutako Oriaburu eraikineko saioak, bertako dendariei bideratuak dira. Arratsaldero, kokagune berean, gai hauen inguruko jakin nahia duen orori bideratutako 4 sesio ospatuko dira, astelehenetik ostegunera bitartean.

Kurtso guztiak doakoak dira, baina aurrez izena ematea ezinbestekoa da. Informazio gehiago lortu eta izen ematea, www.lehiberri.eus edota Tolosaldea Garatzeneko, 943 654501 telefono zenbaki bitartez egin liteke.

Zibersegurtasuna: aurreikuspen eta erantzuna eraso digitalen aurrean

Enpresa txiki eta ertain askorentzat zibersegurtasuna buruhauste bat izaten hasi da. Jardunaldi honetan mehatxu honen arrisku nagusiak eta honen aurrean har daitezkeen neurriak zein diren aztertuko dugu. (Astelehen goiza).

Baliatu zure enpresako datuak erabakiak hartzerako orduan

Tailer honetan zure enpresako eguneroko egitekoak automatizatzen, neurritzen eta optimizatzen ikasiko duzu erabiltzen errazak diren tresna batzuei esker. Kasu bakoitzak bere benetako aplikazioa izango du jardunaldi barruan. (Astearte goiza).

Plan digitala: nola integratu estrategia digitala enpresa industrialen plan komertzial tradizionalarekin

Ikasi marketin estrategia bat garatzen zure enpresan. Tailer honetan SEO nahiz sare sozialak modu praktikoa baten eta adibideen bidez lantzen ikasiko duzu. (Asteazken eta ostegun goiza).

RGDP: ezustekoak ekidin datuen babeserako lege berriarekin

Datuak enpresa barruan egon daitezkeen aktibo garrantzitsuenetakoak dira. Jardunaldi honetan metatutako informazioa nola babestu eta datuen babeserako lege berria nola bete ikusiko dugu. (Ostiral goiza).

Komertziorako marketin digitala

Bi orduko lau jardunaldiren bitartez, komertzioetara zuzendutako marketin digitalaren hainbat arlo landuko ditugu. Tailer hauek %100 praktikoa izango dira, eta sare sozialei eta posizionamenduari buruz hitz egingo da

(saioetara telefono mugikorra eramatea komenigarria izango da. (Astelehenetik ostegunera, eguerditan).

WIFI guneetako segurtasuna

Jardunaldi honetan WIFI sareetan hartu beharreko neurriei buruz hitz egingo dugu. Bakoitzaren WIFI sarea nola konfiguratu eta beste sare ezezagunetara nola konektatu azalduko da. (Astelehen arratsaldea).

Etorkizuna iritsi da: dronak eta tresna teknologiko berriak

Teknologia abiadura bizian doa aurrera, orain dela urte batzuk ezinezko zirudiena gaur egun edozeinen esku dago. Jardunaldi honetan tresna eta gailu teknologiko ezberdinak ikusiko ditugu. Burbuila edo errealitatea? (Astearte arratsaldea).

'Online' salmenta: nahi ez duzuna saltzeko aukera

Bigarren eskuko *online* salmentak gure artean geratzeko iritsi dira. Behar ez duguna saltzeko aukera ematen digute. Tailer honetan hauen truke dirua lortzeko plataforma eta baliabide ezberdinak ikusiko ditugu. (Asteazken arratsaldea).

Internet lana aurkitzeko

Lana aurkitzeko Internet beharrezkoa da. Jardunaldi honetan denon eskura dauden *online* tresna eta baliabide nagusiak ikusiko ditugu. (Ostegun arratsaldea).



Bertsolari eta biologoa

Bada bertso zoragarri bat, Pedro Mari Otañok 1932an idatzi zuena, edozein biologo hasi berrik irakurri beharrekoa. Otañok, bertso hauek, txepetxari botatzen dizkio, espezie baten deskribapen zehatz bat bertso bidez egin daitekeela erakutsiz. Bide batez ere, garai bateko gizarteak inguruko bizi-dun ezagutza bikaina zuela berretsiz, zoritxarrez gaur egun galdu duguna. Bertso hauen arabera, txepetxa, gurean dugun «hegatzirik langileena omen da, inurria eta erlea baino are langileagoa, itxuraz gaztaina kolore eta ez oso polita, hegalarri xalapartaria eta gorputz motx eta txikia». Dirudienez, Otañok ez zuen txepetxa, paradisu-ko hegazti eder bat bezala deskribatu, nahiko txori txiki arrunta bezala baizik. Habia egiten udaberriko lehen hegaztia dela esaten du, bi zuloko habi oso ikusgarria, askotan zuhaitzen enborretan ageri dena, habia hain bistan uztearen atrebentzia horregatik, «arreta gabeko txoria» dela dio azken bertsoan. Baina zer zekien bertsolari honek txepetxaz? Egia al da txepetxari buruz dioen guztia? Ea txepetxologoez zer dioten.

Lehenik eta behin esan, txepetxa bezalako izen politeko txoria, benetan itxuraz ez dela oso polita, honetan arrazoia zuen Otañok. Kolore marroi ilun bat du, arrak ez du inongo luma ikusgarriarik emeak erakartzeko, eta bere isats luzanga eta tenteagatik ez balitz, txepetxa oso hegazti marroi arrunta da, horrez gain ez du kanturik nabarmen bat, beraz, txiki eta borobil ponpoxoa ez balitz, guztiok 'txorie' deituko genioke eta Otañok ez zizkion bertsoak egingo.

Txepetx ar, txiki eta kolore bizirik gabekoarentzat beraz, ez da erraza bikotekidea bilatzea. Zer egiten dute orduan txepetx arrek bikotekidea bilatzeko? Ba... hegazti txikien munduko arkitekto onena bihurtu! Txepetx ar gizarajoa, emea bilatzeko hamar habi egiteko gai dira, gainera, in-



guruan zenbat eta ar gehiago egon, arrek lehia handiagoa dute, eta orduan eta habi gehiago eta hobeagoak egiten dituzte. Apur bat, Tolosako larunbat gauean *Homo sapiens* ar gazteekin gertatzen den bezala, nork handiagoa egingo, bat tabernako barrara igotzen bada, bestea kanpoko farolera igoko da... eta guztia, emeak erakartzeko noski!

Txepetx arrek ere antzeko zerbait egiten du, ar batek lau habia eder egiten baditu, beste arrek bost egingo ditu eta beste ar bat badator, honek sei eta seiak txoko goxo eta politenean eraikiko ditu, batzuk Ikeako altzariak eta guzti ipintzen omen dituzte. Eta behin, ar guztiak beraien habiatxoak eraikita, hantxe datoz emeak, habi gustukoena aukeratu eta bertan sartzen dira, zorioneko arrari deika. Ar batek habia ederrak eta egokiak egin baditu, bere habi bilduman, agian hiruzpalau eme izango ditu, albotik albotik bat ere ez duen bitartean. Beraz, habiak egiteko abilezia saritu egiten da txepetxaren munduan, eta eraikuntzarako berezko gaitasuna duten txepetxak askoz gehiago ugalduko dira.

Goroldio, adar eta belarrarekin egindako habi txiki borobil honetan, txepetx emeak sei arrautza inguru ipiniko ditu, orraztu gabeko lumak di-

tuen txito itsusi bat jaioko da arrautza hauetatik, non urte baten barruan, txepetx heldua izango den. Txiki eta ahula dirudien arren, inguru berrietara egokitze gaitasun handia duen hegaztia da, sastrakadiak, belardi zabalak, baso itxiak zein hiriguneetan oso erraz moldatzen da, jateko orduan nahiko dieta askotarikoa baitu, adibidez, ur eremuetatik gertu bizi diren txepetxek, arrain gehiago sartzen dute beraien dietan, belardietan bizi direnek ordea, intsektuz elikatzen dira gehienbat, eta garai txarrak edo hotz handiko urteak badatoz, haziak jateko joera du hegazti honek, beraz bere txikitasunean, ingurumenaren aurreko borrokalari bikaina dugu txori itsusi borobil hau.

Bukatzeke bere izen zientifikoaren txantxa dago: *Troglodytes troglodytes*. Izan beldurgarri honekin, kobazuloetako hartz handi bat ematen duen arren, izen hau, txepetx talde batzuek, kobazuloetan bizitzeko duten joeragatik dator. Eta euskarak ere baditu izen politak hegazti honentzat, guztiak «t» bustidura polit batekin: aña-rrapiterra, amiaputika, epetxa, epe-tpopita, larrepittita.

Txepetxak, hegazti marroi txiki eta arruntak ingurumen latzaren aurrean eusteko abilezia erakusten digu, beraz, marroi, ximple eta arruntak garen gizakiok ere badugu zer ikasia txori txiki ahul honetatik... izan txepetx!



**JON ANDER
GALARRAGA**
BIOLOGOA

«EMAKUME
PENTSARAZTEN
DIGUTE, GEURE
BURUA ONDO
IKUSTEKO

BI TITI EDUKI BEHAR DITUGULA»»

AINTZANE ARTOLA

BULARREKO MINBIZIA IZAN DU

Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da gaur eta, efemerideak sortu ohi dituen irudi eta mezuetatik urrun, Aintzane Artolak ikuspegi gordina du gaixotasunaren eta haren inguruko estereotipoei buruz

Itzea Urkizu Arsuaga

Gazte ezagutu zuen bularreko minbiziaren amets gaiztoa, eta hasperen egiten du, oraindik, une haiek gogora ekartzerakoan. Aintzane Artolari (Tolosa, 1985) bular osoa eta be-

sazpiko guruina kendu zizkieten gaixotasunari aurre egiteko eta, erabakimenez, protesirik gabe bizitzeko hautua egin du. Feminismotik begiratzen dio bularreko minbiziari eta, begirada horrek malkoak eta bakardade sentipena ekarri dizkion arren, ikusi du munduan badela, norbere ongizatea kanon estetikoan gainetik jartzen duen jende gehiago. Hizkera patxada-

tsuz, erraietatik josi du elkarrizketako kontakizuna; edonori erraietaraino iristekoa.

Bularreko minbizia pasatu zenuen, nahiko gazte; ohiko adina baino gazteago. Nola bizi izan zenuen gaixotasuna?

Nik 31 urte nituen. Bigarren semeak urtebete inguru zuen, eta hari bularra ematen ari nintzen. Konturatu nin-

«Bularreko minbiziaren bueltan, oso zabaldua dago emakume gerlari edo borrokalariaren irudia, eta ez zait batere gustatzen. (...) nik ez nuen gerra bat bizi izan, ni ez naiz gerlaria»



ITZEA URKIZU

tzen koskor txiki bat nuela bularraren alde batean. Normalean, bularra ematen ari zarenean, bularra puztu edo jaitsi egiten da, esnearen arabera; hasieran, beraz, edoskitze arazo bat izango zela pentsatu nuen. Emaginarena jo nuen, eta segituan deitu zion ginekologoari. Ekografia bat egitera bidali ninduten, izan ere, bularra ematen ari zarenean, mamografian ez da ezer ikusten, esneagatik. Aste batzuen buruan, minbizia nuela esan zidaten; konkorreraren tumor bat zela, gorpuzaren gainontzeko zati guztiak ere aztertu behar zituztela, eta edoskitzea aste hartan bertan bukatzeko. Aste horretan bertan, beraz, probak egin nituen, eta medikuarenetik bularreko minbiziarekin «bakarrik» aterantz nintzen. Eta, 15 egunera kimioterapia hartzen hasi nintzen. Askotan esan izan dudana bezala, sorta osoa jaso nuen, gainera: ki-

miotterapia lehenengo, mastektomia erradikala –bular osoa eta besazpiko guruinak kentzea– eta radioterapia.

Zenbat denbora pasatu zen tratamendua osorik jaso arte?

Urte eta erdi iraun zuen prozesuak, eta bukatu ere duela urte eta erdi edo bukatu nuen. Oraindik urtean hirutan jotzen naiz kontrolak pasatzera, noski.

Hain esperientzia gogorra pasatu izanak zein irakaspen utzi dizu?

Alde batetik, konturatu nintzen jende pilo bat dagoela aldamenen, asko. Beharbada esperoko ez nukeen jendea gerturatu zen nigana, besarkada bat ematera, edo telefonoz hitz egiteko prest zeuden inguruko zenbait; ez da beste munduko ezer, baina hor daude. Jende askok esaten du, minbizia pasatu eta gero bizitza benetan bizitzen hasten direla. Bi urte pasatxo dira jada, eta esan dezaket baietz, nire bizitza al-

datu dela, baina betikoa izaten jarraitzen duela, aldi berean. Egunero ordu berean esnatzen naiz, haurrak ditugu, eskolara eraman behar dira, lanera jotzen naiz... Erritmo berean jarraitzen dut. Egia da, badihala ‘ze ondo, orain ze ondo’ pentsatzen dudana momentuak. Eta, orduan, poztasun negarraldi saioak egiten ditut; baina hori, ondo nagoenean gertatzen zait. Azken aldiz familiarekin oporretan geundela gertatu zitzaidan.

Gehiago estimatzen dira momentu horiek.

Bai. Baina, esandakoa: gainerakoan, bizitzak berbera izaten jarraitzen du.

Bularreko minbiziaren bueltan bada genero ikuspegia lantzen duen teoria edo mugimendu bat; zuk bat egiten duzu ideia horiekin. Nola hasi zinen gaixotasun horren genero ikuspegia deskubritzen?

Bularreko minbiziaren bueltan, oso zabaldua dago emakume gerlari edo borrokalariaen irudia, eta ez zait batiere gustatzen. Zeren, nik sentitzen dut ez nuela ezer handiegirik egin; medikuek tratamendua jarri zioten nire tumore motari, eta listo. Baina nik ez nuen gerra bat bizi izan, ni ez naiz gerlaria. Gainera, atzean gelditzen direnak, eta minbizia gaintzen ez dutenak, ez dute ezer egin ala? Horrek amorratzen nau gehien. Ez da beraien errua izan, pertsona horiek guztiek ere tratamendu bat baitzeukaten; beharbada, ez zegoen nahikoa diru gehiago ikertzeko eta tratamendua hobetzeko. Bularreko minbiziarekin hil direnek ez dute gerrarik galdu, baina badirudi gaixotasuna pasatu dugunok indartsuak garela, eta itxura hori eman behar dugula: ondo gaudela, pozik gaudela eta dena oso polita dela. Eta ez da horrela. Ez dituzte erakusten bularreko minbiziak uzten dituen benetako orbanak; ez dute erakusten emakumeok nola geratzen garen bular bakararrekin. Erakusten dutena da, nola estal daitekeen hori guztia. Orbana tapatzeko protesiak saltzen dituzte, eta titizorro bereziak eta, teoriarik, hori guztia gu hobeto sentitzeko egiten dute. Eta ni, pixka bat galduta ikusi izan naiz mundu horretan.

Egia da, sekula ez diodala garrantzi handiegirik eman nire itxurari, eta ez naizela gehiegitan makilatu, edo nire ileaz hainbeste arduratu. Hori horrela izanda, talde batean entzuten duzu edo interneten irakurtzen duzu, tratamenduari aurre egiteko makilatuta atera behar duzula kalera; horrek asko harritzen ninduen. Bai, gustatzen zait noizbehinka ezpainak margotzea, baina horrek ez du esan nahi aurpegi hobea izango dudarik eta azkarrago sendatuko naizenik. Ni aurpegia puztuta esnatzen nintzen, nekatuta esnatzen nintzen, eta jaikiarazten nindutenak nire semeak ziren, nire bikotea zen; indar hori, eta ez makillajearena. Aurpegi hobea norentzat eduki behar dut? Niretzat ala kanpokoentzat? [hasperena].

Itxurakeria bakarrik sendatzen dute?

Bai, eta negozio handia dago hor atzean. Horretan sartuta ez baldin bagaude, ez dugu ikusten. Ileorde batek 1.000 eurotik gora balio du; bekainak

«Argitalpen asko irakurri ditut, norbere bikotearen aurrean 'sexy' egoten jarraitzeko aholkuekin-eta (...). Sexualitatea ez da bular bat edo bi izatearen arabera neurtzen»



margotzeko mikropigmentazioa egi-teak 300 euro balio du; gizarte segurantzak babestutako protesi batek 200-300 euro balio du; poltsikoa duen titizorro batek 80-90 euro balio du. Sekulako negozioa dago hor atzean.

Eta, guztia, eredu estetiko batzuk betetzeko; zaila baita iragarkietan edo albistegian benetan ebakuntza batek zer eragiten duen ikustea, adibidez.

Bai. Niri gauzak argi ikustea gustatzen zait eta, operatu baino egun batzuk lehenago, ikusi egin nuen niri egitekoak ziren ebakuntza berbera nola egiten duten [barreak]. 'Ebakuntza egin eta titia kenduko dizugu', azaldu zidaten, oso ondo. Baina, ez nekien zer egingo zidaten, sekula ez baitugu argazkitan ikusten, zenbaterainoko orbana geratzen zen.

Horren harira, egin berri dute kanpaina bat, polemikoa izan litekeena. Venezuelako neska batek egin du kanpaina, eta ziur naiz bere asmo onenarekin egin duela egin duena, bere amak minbizia pasatu baitzuen, antza.

Zer ikusten da kanpaina horretan?

Iragarkian agertzen diren emakumeek ez dute minbizirik izan eta, Photoshop bitartez, orban bat jarri diete bularraren lekuan. Minbizia pasatu dugunok eta benetako orbana daukagunok, badakigu iragarki horretan ikusten dena tiritatzen dela; ez da nik daukadan markaren erdia ere agertzen. Kanpainan parte hartu duten emakumeek azaldu dute, sekulako zirrara eragin diela beren burua orban digital horrekin ikusteak: 'Edonori gerta dakioke'.

Bai, nik orban bat daukat, baina bizitza normala egin dezaket. Ordea, sekulako beldurra sortu digute eta, beste behin, emakumeok sartzen gaituzte beldurraren mundu horretan. Ez da hainbeste hitz egiten prostatak minbiziaren inguruan, eta emakumeoi bularrekoa bezainbeste gertatzen zaie, prostatakoa, gizonei; baina, kasu horretan, ez dute beldur hori sortzen. Gainera, beldurra ere aztertzeak da: 'Titi bat kenduko dizute, eta begira zein itsusi gera zaitezkeen'.

Feminitatea galtzeko beldurra, finean?

Bai, izugarrikoa. Bide beretik, argitalpen asko irakurri ditut, norbere biko-



«Ez dituzte erakusten bularreko minbiziak uzten dituen benetako orbanak; ez dute erakusten emakumeok nola geratzen garen bular bakarrarekin. Erakusten dutena da, nola estal daitekeen hori guztia»

tearen aurrean sexy egoten jarraitzeko aholkuekin-eta. Nire bikoteak badaki bular bakarra daukadala, eta horrek ez du zerikusirik berak ni ikusteko duen moduarekin; eta, bestela, arazo handi bat izango genuke. Sexualitatea ez da bular bat edo bi izatearen arabera neurtzen, hala izatea espero dut behintzat.

Minbiziak berak duen kargaz gain, beraz, gaixotasunaren ondorenak ere sekulako karga du.

Bai, bereziki itxurakeria hori. Kalera aterata eta, saiatu behar dugu, gure bular bakarra edo bularrik eza agerian ez uzten. Ezkutatatu egin behar da hori. Zurrumbilo horretan sartuta zaude, medikuarenetik pasatzen zara, eta behin eta berriro esaten dizute, minbiziaren zikloa bukatzeko, hoberena bi bular izaten jarraitzea dela. Horrek esan nahi du, beste ebakuntza bat edo bi pasatu behar dituela emakume batek, horrek dakartzan buruhauste, baja, ondorez eta ebakuntza ondoren goekin.

Zuk zein momentutan erabaki zenuen, ezetz, ez zenuela protesi bat edo bular bat jarriko?

Nik kanpo-protesi bat erabili nuen; titizorroak poltsiko bat dauka, eta hor sartu behar da protesia. Oso deseroso sentitzen nintzen eta, esan zidaten, niretzat protesi egokia aukeratu ez nuen-

lako izango zela; beste protesi bat erosi nuen, 300 eurokoa. Baina deseroso egoten jarraitzen nuen, eta ni bezala deseroso zegoen norbait ezagutu nahi nuen; bada, hemen inguruan ez dut inor aurkitu oraindik.

Kiroldegira joaten ere hasi nintzen, eta kirola egiteko bularretakoan ere protesia sartzen nuen. Oso-oso-oso deserosoa da horrela kirola egitea, motxila pisutsu bat eramatearen pareko baita; nahikoa ez gure titiekin eta, gainera, beste mugimendu bat. Noski, kirol saioa amaitutakoan, denok aldagelatan sartzen ginen, eta nirekin gela berarean aritu zirenen aurrean biluzten nintzen, dutxan sartzeko. Eta, hor, nire buruan zerbaitek krak egiten zuen: 'Baina, norentzat ari naiz ni protesia janzten?'. Nire inguruko guztiek zekiten titi bakarra neukala eta, etxera iritsitakoan, egiten nuen lehenengo gauza izaten zen, bularretakoa kentzea; eroso egon nahi nuen.

Eta erabakia hartu zenuen.

Negar asko egin eta gero, eta ondo pentsatu eta gero, kalera ezer gabe ateratzea erabaki nuen. Lehenengo egunean ez nintzen eroso sentitu, iruditzen baitzaizu, jende guztiak begiratu egin behar zaituela, eta lotsagabe bat zarela pentsatu.

Kasualitatez, gainera, garai hartan Glaukomak disko berria argitaratu

zuen, eta ze guapa zauden, horren lotsagabe, estereotipo denak hausten kantatzen zuten. Bada, horrelaxe sentitzen nintzen ni: 'Lotsagabe bat naizela? Hala izango naiz, baina kalera eroso atera behar dut, ni naizen bezala'. Eta urtebete pasatxo daramat horrela.

Nolako urtea izan da?

Etxean nituen bizpahiru bularretako hartu, eta guraizez moztu nien falta zaidan bularraren aldeko kopa; horrela janzen ditut orain. Eta eroso sentitzen naiz (...) baina uste dut medikuak bi bular izatea sustatzeko prest daudela, sozialki>>

Eta zuk jarrera irmoa erakusten duzu beti, medikuen aurrean?

Azkenaldi honetan paso egiten dut, berdin zait zer pentsatzen duten. Baina horrek autoestimuan eragiten du eta, medikuekin egon nintzen azken aldian, ukitua heldu nintzen etxera. Erabaki bat hartu dut, hau da nire erabakia, baina, errespetatu beharrean, bueltaka eta bueltaka jarraitzen dute.

Medikuak zauri fisikoez arduratzen dira, baina, zure kasuan, zauri emozional horiek sendatzen ere lagundu dizute?

Uste dut medikuak bi bular izatea sustatzeko prest daudela, sozialki. Alegia, emakumeoi pentsarazten digute, geure burua ondo ikusteko bi titi eduki behar ditugula; eta, orain ez baldin bada, hamar urte barru izango dela. Oraindik ez dute onartzen, ni horrela naizela eta horrela atera nahi dudala kalera.

Negozioa behin baino gehiagotan aipatu duzu. Egunotan, ohikoa da lazo arrosak nonahi ikustea, hori ere negozio horren zati da?

Bularreko minbiziren inguruan negozio oso bat dago, eta kontsumitzeria bul-

tzatzen gaituzte, gainera. Protesiak eta beste zenbait gauza Osakidetzak babesten ditu, baina, gero, mundu handi bat dago. Interneten pixka bat nabigatuz gero, aurpegiko kremak, ileordeak, orrazkera, mikropigmentazioa, ... Dena, ispiluan hobeto ikuste horretara begira.

Eta, lazo arrosei dagokionez, badira lan ona egiten duten elkarte asko. Egiten ari diren hori benetan sinesten dute, eta laguntzeko daude, bai psikologikoki, bai materialari dagokionez.

Kontrara, ordea, beste hainbat elkar-teren ildoak ez da hain egokia, nire ustez. Iaz, adibidez, Madril eta Bartzelonako zenbait elkarte bat egin zuten, eskaera bera babesteko: bularreko protesia jartzeko gizarte segurantzako itxaron-zerrendak azkartzea. Hau da, esaten ari dira, ebakuntza lehenbailehen egitea dela emakumeok behar duguna.

Eta, gehienei behar hori transmititzen diete.

Nik sinesten dut zenbait emakumek ebakuntza hori behar izatea, baina, era berean, pentsatzen dut sozialki bultzatzen gaituztela bular protesia jartzera, eta behar hori sortua dela.

Lagunei beti esaten nien, egoera imajinatzeko. Hilero medikuarengana joan, eta esango baligute: 'Ze sudurra daukazun, ederki utziko nizuke nik, ebakuntza txiki batekin. Gaztea zara eta urte asko dituzu aurretik'. Eta hurrengo hilabetean berdin; eta hurrengoan ere bai. Azkenean, etxera bueltatuko ginake, sudur horrekin zerbait egin behar dugula pentsatzen. Bada, uste dut hori dela bularreko minbizia- rekin gertatzen dena: errepikatzearen errepikatzean, beharra sentitzen dugu.

Protesirik gabe bizitzea erabaki ze-



nuenean, zein izan zen inguruko- en harrera?

Hasieran ez ninduten ondo ulertzen, eta uste dut zomorrotzat nindutela. Baina, ezagutzen nautenek badakite ni nolakoa naizen eta, gerora, izugarri lagundu didate. Zalantzak izan ditudanean, edo medikuarenetik lur jota itzuli izan naizenetan, beti hor egon izan dira. Erabakia hartu nuela eta ondo hartu nuela esaten didate, eta aurrera jarraitzeko, esaten didatena esaten didatela. Babes hitz horiek entzutea beharrezkoa da.

Bularreko minbizia gazterik pasatzeak tabua handitzen duela uste duzu?

Presio handiagoa sentitu izan dut, gaztea naizelako. Badirudi are lirainago egotea dagokidala, gaztea naizelako eta, aldiz, 60 urteko emakume batek eskubide handiagoa duela bularretakoaz edo protesiaz kexatzeko. Horren harira, askotan sentitu izan dut korrontearen aurka igerian ari naizela; mundu guztia alde batera doa, eta ni kontra egiten ari naiz. Eta hori neketsua da.

Beste minbizia batzuekin alderatuta, bularrekoak tarte zabalagoa izan ohi du komunikabideetan. Presentzia hori, ordea, kontraesankorra da?

Gaixoen %80k baino gehiagok gaidintzen dugu minbizia mota hau, eta hori kontatu behar da. Baina tratamenduak sor ditzakeen eta dituen arazoak ere kontatu behar dira. Esaterako, inon ez dute kontatzen erradioterapia jasotzen dugunok zer nolako erreduzakerak izaten ditugun azalean. Lehen aipatu bezala, ikusten den bakarra da, gerlari lirain batzuk buruan zapi bat jantzi, eta mundua jango dutela. Uste dut, aldamenen bularreko minbizia pasatu duen norbait izanez gero, begirada aldatzen dela.

Tratamenduak iraun zuen hilabeteetan, ezagutuko zenuen gaixotasun bera pasatzen ari zen jendea. Beste pertsona batzuekin hitz egi-

teak alderdi emozional horretan laguntzen du?

Asko, asko. Kimioterapiarekin hasi nintzenean, gehien harritu ninduen onkologiako itxarongelan zegoen jendetza izan zen. Hainbat minbizia motatako gaixoak geunden, baina ez nuen imajinatzen hainbeste jende egongo zenik, eta pentsatu nuen: "Zer da hau?". Itxarongela horretan, gutxienez, ordu eta erdi pasatu izan dut zain, eta aldiro jendea, eta jendea, eta jendea pasatzen zen. Eta, noski, aldamenekin hitz egiten duzu; hitz egiten duzu, gainera, sekula entzun ez dituzun gauzez. Adibidez, kimioterapiarekin ilea erortzen denean, denok ikusten dugu buruko ilea nola erortzen den, baina gorputz guztiko ilea erortzen da, dena. Gogoan dut nola barrez esaten genuen, oso deserosoa dela sudurzuloan ilerik ez izatea [barreak]. Hori zure egoera berean dagoenak bakarrik kontatu diezazuke, eta horrelako momentuak ere behar dira; laguntza eta enpatia hori behar dira.


Minbizia pasatzea kolpe gogorra izango den arren, ezer onik eman al dizu?

Ezin diot horri baietz esan. Egia da gauza batzuk eman dizkidala, baina, argi dago, nik nahiago izango nukeela horrelakorik ez pasatzea, eta inork ez pasatu behar izatea. Baina, egia da, jendea ezagutu dudala eta bizipen bat gehiago dela.

Bularreko minbizia genero ikuspegitik lantzen duen liburu bat lagun izan duzu. Zer eman dizu liburu horrek?

Bai, *Cicatrices (in)visibles* da liburua, hainbat egileren artean idatzia. Liburu horrek lagundu dit, nik pentsatzen dudana edo nik dudak ikuspegia lantzen duelako. Feminismotik lantzen du minbizia eta, irakurtzen, konturatu nintzen ez naizela hain arraroa, eta badagoela nik bezala pentsatzen duen jendea.

Dokumental oso on bat ere bada, *Los lazos rosas* izenekoa. Hor ere pen-



PORROCHE ESCUDERO, A. /
RIBA SANMARTI, C. / COLL-
OLANAS, G. (2017): *Cicatrices
(in)visibles*. Bartzelona.
BELLATERRA EDICIONS

tsaera hau erakusten dute: minbizia pasatu dugunok ez gara super heroiak, emakumeak gara, eta batzuk estereotipoetatik ateratzeko beharra dugu. Bularzapal garenok aurrera egiteko gaude, ez gaude ebakuntza batean jarri dizkiguten bular politikak erakusteko.

Kamiseta aldarrikatzaile batekin iritsi zara elkarrizketara.

Bai, Bartzelonako Save the Mama gobernu kanpoko erakundearen kamiseta da. Alde batean bular baten marrazkia dauka, titiburu eta guzti, eta bestean orban bat dauka, alderik alde. Elkarrekin honek HER2+ tumorearen ikerketa bultzatzen du, nik izan nuen tumore mota, Bartzelonako ospitale batean. Eta kamiseta gustatzen zait, umore beltza erabiliz, normalean ikusten ez den errealitatea erakusten duelako: nola bular batekin kalera ater daitekeen.

Aralarrek gordetzen duena

Aralar bere osotasunean ezagutzeko egindako dokumentala da 'Aralar, mundua leku den lurra'. Horrela esan zuten bere egileek aurkezpenean, eta horrela azaltzen dute artikuluan.

20

Imanol García Landa

a Atzo estreinatu zuten *Aralar, mundua leku den lurra* dokumentala Donostiako Principe zinema aretoetan. Landarlan Ingurumen Elkartek eta On Produkzioak-ek elkarlanean egindako lana da. Hainbat herritan dagoeneko lotuta dituzte hainbat emanaldi, tartean Tolosaldean.

Aralarko pisten afera zela eta, Aralarri buruzko hitzaldiak ematen hasi zen Landarlan herriz herri. Aloña Jauregi elkarteko kideak eta dokumentalaren zuzendarietako batek dioenez, «konturatu ginen ezagutza falta handia zegoela orokorrean, bai gure artean eta baita jendearen artean ere. Txindoki eta lau larreez gain, gutxi samar ezagutzen genuela Aralar». Landarlane-tik «ekarpen bat positiboan egitea» pentsatu zutela dio Jauregik, eta hasieran ideia sinple bat zena, dokumental txiki bat egitekoa, handituz joan zela.

Iban Toledo On Produkzioak-eko kidearekin jarri ziren harremanetan, gerora zuzendarietako bat izango zena. «Ibanek, onerako, erru pixka bat du emaitzan», esan du Jauregik. «Gure ideia hasieran sinpleagoa zen, hoguei minutuko dokumentala egitea, gauza garrantzitsuenak jarritz, baina Ibanekin bildu ginenean, eta planteatu zutenean zein azpiegiturarekin egingo zuen eta nolako ikuspuntua emango zitzaion, aldatu egin zen ideia. Hasi ginen lanean, eta pixkana hartu du orain duen dimentsioa». Bere aldetik, Toledok azaldu du garbi zuela gaiak merezi zuela «horrelako esfortzua egitea», eta «kalitatezko lan bat egin behar zela, eta horrela egin da».

«Ikaragarri» ikasi dutela dio Jauregik, beraien «sorpresarako». Lehen harrir sinple bat ikusten zuten lekuan, orain milaka urte dituen aztarna ikusten dute. Dokumentala egitearekin batera, egileak ere ezagutzaz jantzi egin dira, eta «balioan» jartzen dute eremua. «Aralarren Txindoki eta lau

larreez gain gauza asko daudela konturatu gara. Hasieratik horren bila abiatu ginen, baina gure harridurarako, guk geuk asko ikasi dugu eta uste dugu dokumentalean nahiko ondo jasota geratu direla osotasunean Aralarrek gordetzen dituen altxorak eta balioak». Ikuspegi aldaketa hori ere nabarmendu du Toledok: «Ikasi dugunarekin, orain edozein tokitara joaten zara eta edozein harri ikusten duzula, beste zentzu bat ikusten diozu. Aralarrek ere lur azpian sekulako aberastasuna du; bertara espeleologoekin sartu gara, eta gauzak ez dituzu lehen bezala ikusten».

Kalitate handiko irudiak

Dokumentala, baina, ez zuten ohikoa egin nahi. «Askotan, dokumentalak ikustean, erreportaje moduko bat izaten dira. Garbi genuen hortik alde egin nahi genuela eta sormenezko zerbait egin», esan du Toledok. Hainbat alorretako adituek esandakoaz gain, beste zerbait sartu beharra ikusten zuten.



«Adituek hitz egiten dutena harilkatuko zuen kontakizun bat sortzea nahi genuen», zehaztu du Toledok. «Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek istorio bat sortu dute, alegiazko mundu bat, eta hori izango da dokumentala harilkatuko duena».

Irudiak kalitate handikoak direla nabarmendu dute, eta horretarako zinemarako erabiltzen diren optikekin aritu dira. Azken belaunaldiko kamerarekin grabatu dute, eta gehiena 4K formatuan eta hainbat grabaketa 5K formatuan ere egin dituzte. Azken emaitza 4K formatuan edo kalitatean izango da. «Zinema aretoan botatzeak muga batzuk ezartzen ditu eta horietako bat izan zen erresoluzioa», esan du Toledok. Bestalde, animaliak eta natura grabatzeko kamara geldoa erabili dute.

«Alde teknikoari begirada erantsi nahiko nioke», esan du Jauregik. «Ibanek Aralar ezagutzen du, eta saiatu gara argazki tipikoetatik alde egiten, txokoak beste ikuspegi batetik ematen. Agian jendeak esperoko du betiko bide eta lekuak ikustea, eta hortik ere aldendu egin gara».

Urte eta erdi ibili dira grabaketak egin eta dokumentala osatzeko. «50 irteera aurreikusita genituen eta azkenean 70 ingurura iritsi gara», esan du Toledok. «Argi genuen ez genuela nahi garraibide mekanikorik erabili». Hiru kasutan erabili dute autoa, bestela ez zutelako posible grabaketak egitea, eta horrez gain asto batekin eta

«Aralarren Txindoki eta lau larreez gain gauza asko daudela konturatu gara. Hasieratik horren bila abiatu ginen, baina gure harridurarako, guk geuk asko ikasi dugu»

ALOÑA JAUREGI
DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

bizkarrean eraman dute materiala. «Jaxinta astoarekin iritsi ahal izan gara zenbait leku berezietara, baina horrek ere luzatu egin dizkigu grabaketa saioak. Hori bai, Aralarren beste ikuspegi hori ematea ahalbideratu digu».

Gauzez eta bibak eginez ere aritu direla diote egileek. Besteak beste, Ara-

lar elurtuta ere grabatu dute. «Joan ginenean elurra iragarrita zegoen, baina ez zegoen ezer», azaldu du Toledok. «Kamera atera bezain pronto hasi zitzaigun ekaitz elurtea eta irudi ikusgarriak lortu genituen. Handik bi egunetara joan ginen berriro, eta sekulako eguraldia atera zitzaigun, dena elur berriarekin, eta hor drona atera genuen, eta irudi ikusgarriak lortu genituen berriro. Izotz handiarekin ere joan gara grabaketak egitera eta abenturak ere pasa ditugu, baina esaten den moduan, gustuko lekuan, aldaparik ez».

Musikaren garrantzia ere nabarmendu dute. Pello Ramirezek egin du dokumentalaren musika, eta «indar ikaragarria» duela diote. «Narratzaile papera hartzen du. Dokumentala bera 5.1 formatuan nahastu da, eta zinemara joaten denak irudiak ikustera eta musika entzutera joan behar du», esan du Toledok, eta horretara animatu du bereziki, «dokumentalaren kalitatea bere osotasunean jasotzeko». «Pello, nire iritziz, Euskal Herrian erreferente izateaz gain, mundu mailako musikaria da», gaineratu du Jauregik. «Hasie-



ratik esan zigun ikaragarritzko sorkuntza etorri zaiola lan honekin, eta Aralarrekin duen lotura areagotu egin zaiola. Pieza batzuk egin ditu etorkizunera begira oso entzunak eta erabiliak izango direnak».

21

Ikusten dena eta ez dena

Aralarri buruzko informazioa ematerakoan, lau gai edo multzotan banatu dute. Geologia eta uraren alorrean, esaterako, EHUKo irakasleekin aritu dira informazioa jasotzen, zehazki, Arantza Aranburu, Arantxa Bodego, Arturo Apraiz eta Iñaki Antiguedadekin. Geologiaren inguruan azaltzen dute nola sortu den Aralar, eta bertan ikusi daitezkeen zati ezberdinak.

«Sistema karstiko nahiko konplexua duela aipatzen dute behin eta berriaz adituek, eta ur biltegi erraldoi bat dela Aralar», esan du Jauregik. «Gu harrituta gaude Iñaki Antiguedadek aipatzen dituen gauza batzuekin. Beti imajinatzen dugu putzuak daudela, eta sistema ez da putzuka, arroka bera da magikoa, karsta bera da magikoa». Eta Toledok gaineratu: «Arrokak dituen zulo txiki horietan ura eusteko duen gaitasuna da garrantzitsua. Antiguedadek berak aipatzen du esaldi batean: 'Aralarren aberastasuna ez da ikusten dena, baizik ezkutuan dagoena'. Ur biltegi «ikaragarria» dagoela diote. «Hori zaindu egin behar dugu. Guztiok edaten dugu bertatik, eta zenbait azpiegiturek kalte handia egin diezaioke ingurune horri», esan du Toledok.



Fauna eta flora izan da jorratu duten beste alorretako bat. «Jende askok esan digu lau basurde eta lau putre daudela, eta irudipen hori oso zabal-duta dago», azaldu du Jauregik. Aranzadi Zientzia Elkarteko Joseba Garmendia, Maialen Arrieta eta Juan Arizaga kideekin eta Europako WWF-ko biodibertsitatean arduraduna den Sabien Leemans-ekin aritu dira lanean gai horien berri izateko. Besteen artean ugatza aipatu dute dokumentalaren egileek: «Oso gutxi daude, hiru besterik ez Aralarren, eta babestuta dago. Bisoi eta muturluzea ere babestuta daude. Muturluzearen kasuan saiatu gara grabatzen, baina ez da ale-

«Askotan, dokumentalak ikustean, erreportaje moduko bat izaten dira. Garbi genuen hortik alde egin nahi genuela eta sormenezko zerbait egin»

IBAN TOLEDO
DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

rik azaldu, beraz, hori kezkatzekoa da». Lur azpian «ikaragarritzko» bizia dagoela diote. «Ematen du ikusten duguna ez dela existitzen», esan du Jauregik. Florari dagokionez, Aralarren endemikoak diren zenbait landare grabatu dituzte.

Historiaurrea, historia hurbila eta balio immaterialak osatu dute beste alorretako bat. Historiaurreari dagokionez, Joxean Mujika izan dute gidari, azken 25 urteetan, Barandiaranek eta Dorronsorok egindako lanari jarraipena ematen ari zaiona. Historia hurbilean, Juanxo Agirrek Nafarroako Erresumaren garrantzia azaldu du, San Migel santutegia, eta Ausa Gaztelu

eta Jentil Baratzta gazteluak aipatuz. Balio immaterialean, ahozketasuna eta transmisioa nabarmendu ditu Gaizka Arangurennek. «Gizakia Aralarren aspaldiko urteetan ibili da eta horrek sortzen duen ahozko literatura eta istorioak, eta imajinarioa nola sendotzen duen agertu du», esan du Jauregik.

Kudeaketa da laugarren alorra, eta hor Aitziber Sarobek eta Iñaki Aizpuru-ruk ematen dute hari nagusia. «Aizpuru urte luzez izan zen Aralar-ko parke naturaleko zuzendaria, eta Aralarren emandako aldaketa handienak behar-bada bere eskutik etorriko ziren, bai zenbait pista egitea, artzainen txabolak berritzea, eguzki plakak jartzea, txaboletara ura eramatea,... Bertako kudeaketa planean parte hartu zuen, eta horiek azaltzen ditu», esan du Jauregik. Bestalde, Europako Ingurugiro komisarioa den Karmenu Vella elkarriketatze-ko aukera izan zuten. «Aralar Natura 2000 sarearen barruan dagoenez, interesa azaldu zuen inguru hauek babesteari buruzko iritzia emanez».

Jauregi eta Toledoz gain, dokumentalaren zuzendaritza taldean Garazi Auzmendi eta Ion Fontenla daude. «Lanak nahiko natural banatu dira. Ni kamerarekin aritu naiz, nire lanbidea hori delako», esan du Toledok, «baina gero horrelako lan bat egiteko laguntza behar da. Aloñak lagundu dit, gainera argazkigintzarako badu begia, eta segituan jarri zen nirekin, eta irteera gehienetara etorri da». Auzmendi eta Fontenla ere irteeretan izan dira, baina produkzio lana ere jorratu dute, «oso garrantzitsua dena»: txostenak garatu, diru laguntzak eta baimenak eskatu...



Emanaldiak Tolosaldean

Urriak 24, asteazkena.
20:00. Tolosako Leidor
zinema aretoan.
Sarrera: 5,1 euro.

Urriak 27, larunbata.
22:00. Oresako udaletxea.

Azaroak 7, asteazkena.
19:30. Amezketako kultur etxea.

Azaroak 16, ostirala.
19:00. Ikaztegiako
udaletzeko areto nagusian.

Azaroak 23, ostirala.
22:00. Alegiako Elizpe
zinema aretoan.

Abenduak 14, ostirala.
20:00. Adunako udaletxea.



Orain, dokumentala zabaltzearen garaia iritsi zaie. Emanaldi guztietara joateko asmoa dute egileek, gero solasaldi bat izateko aukerarekin. «Gure helburua hori baita, Aralarri buruz hitz egin dadila, eta balioan jarri», zehaztu du Jauregik. Saio horietan mahai bat ere jartzeko asmoa dute, eta bertan digipack bat salduko dute, dokumentala pendrive batean eta Pello Ramirezzen musikaren diskoa. «Ikusi genuen Pelloren lan ikaragarri hori ezin zela bakarrik dokumentalera mugatu, eta pentsatu genuen soinu banaren diskoa ateratzea». Projektua finantzatzeko modu bat izango da digipackaren salmenta. «Horrelako lan batek kostu ikaragarria du», gaineratu du Toledok. Bestalde, *Berria* egunkariaren bitartez ere salduko da.

Egin duten lana «txukuna eta kalitate handikoa» dela nabarmendu dute egileek. «Irudiak ikusgarriak dira, indar handia dute, musikak zer esanik ez, eta Loreak eta Idurrek egin duten testuak balio poetiko ikaragarria du», esan du Jauregik. Ikusteko dago zer ibilbide egingo duen orain dokumentalak aretoetan. Tolosaldean, behintzat, dagoeneko sei herritan izango da ikusgai eta entzungai.



Jogurtak eta postreak
Gaztak
Izozkiak
Haragiak
Ondu xerratuak
Hestebeteak




Mahala Baserria - Leaburu (Gipuzkoa) - 943 670 724 - mahalanaturala.com

Zeliakoentzat gai dira gure produktu guztiak

Gure begiz ikusteko



www.hamaika.eus



Kazetaritzara gerturatuz

TOLOSALDEKO ATARIA-k 2016. urtean hasi zuen *Erakutsiz Ikasi* proiektua, eta bi urte geroago, hirugarren ikasturteari hasiera emango dio urriaren 26an kaleratu den astekarian. Orria osatzearen ardura Tolosaldea Lanbide Heziketako ikasleena izango da. Letrekin jolas egiten dute, eta ikastetxean bizi edota landu dituzten gaiak ekarriko dizkigute 2018-2019 ikasturtean ere.

Ikastetxeen joan-etorria izan da, baina aurren ere eskualdeko zortzi ikastetxek parte hartuko dute, eta aurren sartu dena Anoetako Herri Ikastola izan da. Gainerakoak, hasieratik daude: Ibarako Uzturpe ikastola, Tolosako Herrikide ikastetxea, Inmakulada Lanbide ikastola, Orixe institutua, Samaniego Herri ikastetxea eta Laskorain ikastola, eta Villabonako Ernio-bea institutua.

Ehunka ikasle pasatzen da urtero-urtero, era batera edo bestera, TOLOSALDEKO ATARIA-tik. Hizki eta hitzekin jolas egiteko aukera izaten dute. Hitzez hitz lotzen dituzte gai ezberdinak. Eta urtarrietik aurrera, irratirako jauzia ere egiten dute. Astero 10-15 minutuko saio bat egingo dute. Honela, ikasgelan jorratu dituzten gai horiek eskualde osora zabaltzen dituzte. Modu honetan, hizkuntza eta komunikazio gaitasunak landu, garatu eta jendarteratuko dituzte.

Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Erdi eta Goi mailako ikasleen lanak argitaratuko dira astekarian eta irratian. Eta eduki guztiak *ataria.eus* webgunean irakurri edota entzuteko aukera izango da.

Honez gain, gainerako ikastetxe guztientzat ere atek zabalik ditu Tolosako San Esteban auzoan dagoen erredakzioak. Ikasleen bisitak jasotzen dira, eta kazetaritza barrutik eza-gutzeko aukera dute, eta baita irratian zuzenean parte hartzekoa ere.



Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313

Agenda

OSTIRALA URRIAK 19

ALEGIA

BILERA IREKIA

18:00. Sexu erasoen aurkako protokoloa garatzen jarraitzeko saio ireki bat egingo da, eta Kattalin Minerrek gidatuko du, kultur etxean.

AMASA-VILLABONA

MUSIKA

20:30. Tenpora musika taldearen bigarren diskoaren aurkezpena: *Itzulika*. Gurea antzokian.

AMEZKETA

BILERA

18:00. Amestu Amezketa saioen deliberazio saioen jarraipena izango da. Helburu eta proiektu nagusien mapeatzea egindo dute, kultur etxean.

IKAZTEGIETA

BATZAR IREKIA

19:00. EH Bilduk batzar irekia egingo du pleno aretoan.

TOLOSA

ZEINU HIZKUNTZAKO

IX. NAZIOARTEKO ZINE JAIALDIA

17:30. Ongietorria.

18:00. Museoaren bisita.

19:30. Edgar Murrilloren hitzaldia.

MIKOLOGIKA

09:00. Tolosaldeko ikastetxeetako DBH 1. mailako ikasleak perretxikoak biltzera irtengo dira. Arratsaldean Aranzadiko kideek Tolosako kultur etxean sailkatuko dituzte.

18:30. Txanpi On Fest. Gazteentzat zuzendutako ekimena. Naparzubia eta Plaza Zaharra Pop Up espazio bat bihurtuko da eta bertan zuzeneko musika, DJ-ak, *food truck*-ak eta zerbeza kuboak.

SAN ESTEBAN AUZOKO

XXXI. KULTUR ASTEA

19:00. XVI. Patata tortilla lehiaketa.

Ondoren. Luntxa.

22:00. Antzerkia: *Un ciprés en un desierto*. (Zurrunka teatroren eskutik).

DANTZA

20:30. *lu-Female-Trip* dantza garaikidea, Lasala taldearen eskutik, Leidor aretoan.

ANTZERKIA

22:00. *Trans-formatzen* antzerkia



TXANPI ON FEST, GAZTEENTZAT

Bederatzigarren Mikologika da aurtengoa, eta iaizko berrikuntza izan zen Txanpi On Fest. Gazteentzat zuzendutako ekimenak aurtien ere bere txokoa izango du Naparzubia eta Plaza Zaharra Pop Up espazio bihurtuz. Bertan zuzeneko musika, DJ-ak, *food truck*-ak eta zerbeza kuboak egongo dira. ITZEA URKIZU

Zikloiaren barruan, Amaroitz auzo etxean. Mikele Grande, Ekaitz Golkoetxea, Aitor Lanas eta Garazi Zabaletaren eskutik.

MUSIKA

22:30. Broken Brothers Bras Band taldea, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

LARUNBATA URRIAK 20

ALEGIA

TXINTXARRIEGUNA

19:45. Txintxarri Txiki, Txintxarri Gaztetxoak, Txintxarri eta Badalonako (Katalunia) Betulia abesbatzen kontzertua izango da, elizan.

AMASA-VILLABONA

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

10:30. Subijanak Aljibea eta emakume estanpatzaileak bisita gidatua, Mintzola etxean. Herri erdian baina lur azpian. Hor dago aljibea. Ur-depositoa baino gehiago. Arkitektura txundigarria du, nahiz eta haren patua ikusezina izatea zen, emakume langileen lana bezala. Horregatik, aljibeak istorio ederra kontatzen du bisita gidatu honetan, Historia handiaren zati dena.

ASTEASU

BERTSOLARITZA

21:00. Pello Errota bertsolari txapelketaren finala, Iturriondo jatetxean.

IBARRA

7. AZKUEGUNA

11:00. Txupinazoa Azkueko biribilgunean. Auzoko musikari eta buruhandiekin kalejira Azkuko plazarantz.

Ondoren. Gaztezulorekin batera haur jolas kooperatiboak.

11:30. Toka eta pintxo potea.

12:30. Aperitiff musikatua: DJ Eskatzia libre.

14:00. Bazkaria.

16:00. Bingo popularra.

17:30. Tor magoaren ikuskizuna.

18:30. Asto-Piñata.

19:30. Kontzertua: Howdy.

20:30. Zezen suzkoa.

Jaien bukaera eta auzolanean garbiketeta.

TOLOSA

MIKOLOGIKA

10:30. VII. Elkarteen arteko pintxo lehiaketa Trianguloan.

12:00. Mikologika Azoka, Trianguloan. Tolosa eta Goierrialdeko jatetxeetako sukaldariek pintxoak prestatuko dituzte, osagai nagusiak onddoak eta perretxikoak izango direlarik.



20.30. Amaiera afaria Casino Elkartean. bazkideei eta beraien gertukoei zuzenduta.

SAN ESTEBAN AUZOKO

XXXI. KULTUR ASTEA

10.30–18.30. *Black Market 2018*, merkatu beltza auzoan. BOX. Arekin elkarlanean.

15.00. 2x2 Boleibol txapelketa ferialekuan.

16.30. Haur Jolasak et Box. Akoekin margoketa tailerra.

18.00. Buruhandiak.

18.30. Txokolate jatea, batukada feministak girotua.

22.30. Kontzertuak: Potentor, SP eta Raglefant.

ZEINU HIZKUNTZAKO

IX. NAZIOARTEKO ZINE JAIALDIA

10.30. Irteera Altzora. Herrian zehar bisita: Altzoko Handiaren harrizko eskultura, Joxe Migel Eleizegi bizi izan zen baserrira bisita eta baita ikusgai dagoen erakusketa ere.

13.45. Bazkaria.

16.30–21.00. 12 film laburren proiektzioa eta sari banaketa Topic-en. Sarrera: 8 euro.

21.30. Botarri jatetxean afaria.

BIRZIKLATU AZOKA

16.30. Etxean erabiltzen ez diren gauzak saldu edo trukatzeko aukera, Berdura plazan.

MUSIKA

22.30. Pettik zuzeneko disko grabaketa egingo du Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

IGANDEA URRIAK 21

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

17.00. Anita Maravillas Teatroren eskutik izango da *Jon Braun* haurrentzako antzerkia, euskaraz. Miren Larrea eta Valentina Raposo dira aktoreak, Gurea antzokian. Sarrera: 5 euro.

LEABURU-TXARAMA

X. ARTISAU ETA BARAZKIAZOKA

10.00. Postuen irekiera. Bertako produktuekin saskiak zozkatuko dituzte, haurrek zaldian ibiltzeko aukera izango dute

eta trikitilariak ere ariko dira.

Euskaraldiako gunea ere egongo da.

11.00. Herrialde ezberdinetako jakien dastatzea.

12.00. Garai bateko eta oraingo sega pikatzaile modernoekin ikuskizuna.

13.00. Zaldi erakustaldia Joxe Manuel Iriarteren eskutik.

Ondoren. Bazkaria, Zazpi Bide elkartean.

TOLOSA

SAN ESTEBAN AUZOKO

XXXI. KULTUR ASTEA

09.00. Diana herriko txistulariekin.

10.00. Trikitilariak auzoko baserrietan.

10.30. 2x2 Boleibol Txapelketaren finalaurrekoak eta finala.

11.00. Meza auzokoen hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

11.00. Radio Controloko kotxeen erakustaldiak Ttorreko aparkalekuan.

12.00. Auzoko txarangarekin kalejira.

14.00. Babarrun jatea.

Ondoren. Dantzaldia eta karaokea Joxe Jabier Mendizabalen eskutik. Atsedenean toka txapelketa.

ASTELEHENA URRIAK 22

TOLOSA

POBREZIAREN AURKAKO JARDUNALDIAK

19.00. Amparo Climenten *Las Lagrimas de Africa* dokumentala.

Ondoren. *La otra valla: de Irún a Hendaia* hitzaldia Gerardo Carrere irungo Harrera Sareako partaidearekin.

ZINEMA

EL REHEN

Larunbata (19:30 eta 22:30). Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.



LUIS ETA ESTRALURTARRAK

Igandea (17:00). Haur zinea euskaraz.

Leidor, Tolosa.



NOS VEMOS ALLA ARRIBA

Igandea (19:30 eta 22:00). Astelehena (20:30). Ikuslearen eguna. Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.



LA SOMBRA DE LA LEY

Larunbata. (19:30 eta 22:00).

Igandea (19:30). Astelehena (21:00). Ikuslearen eguna.

Gurea, Amasa-Villabona.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Pello Errota Sariketako finala



TXOMIN AZPIROZ

*Pello Errotan hileta
aitzakizko ariketa
dotore asko prestatu degu
bertso sariketa.
Lortu ez dunak ticketa
alaitu beza kopeta
afal osteko bertso saioa
denontzat libre da eta (bis)*



Doinua

Esateko enaiz lotsa

Okindegian I

Pezetetan pentsatzen ez duen belaunaldikoa naiz. Hogeita bosteko balioa zuena txanpona zibarekin lotzen dituenen garaikoa. Zezen plaza alboko jostailu dendari *Denda merkea* deitzen genion lagun artean, mikro ziren gominolak pezeta baten prezioan saltzen baitzizkigun. Orain, jostailuz itotzen dituzte gozoki dendak gurean, baita monopolio diren liburu-dendak ere. Bostehun pezeta paga potoloa zen. Zinemarako sarrerak erosteko adina ematen zuen. Ehun pezetekin *Frigopie* edo *Minimilk* izozkiak eros zitezkeen; kafea; ogi barra handia, bueltak barne.

Ogia erosteko ehun pezeta ematen zizkidaten gurasoek. Bueltak gozokitan gastatzen nituen. Gogoan dut pezetak zenbatzen zituzten garaian nola hozten zitzairen izerdia telebistako aurkezleak euro hitza esaten zuen ba-koitzean.

Eta ondo gogoan dut dagoeneko adinez nagusia den euroa jaio berri zen garaian, igandearekin, gurasoek -badaezpada- bi euroko txanpona eman zidatenean ogia erosteko, amonak 'fundamentuzkoa' erosteko agindu zidala.

Begien kliska batean txartzen ez dun horietakoa, esan zidan. Gorputza duen mamia eta azal sendoa duena.

«Kurrusk» egiten duen ogia gustatzen zait.

Azala lodi, bai, baina baita barrua ere.

Niri mamia gustatzen zait!, nik, amonaren onespen bila.

Hire adin bueltakoei mamia mehe gustatzen zaien, urtsu; eta ez, ondo hartzitutakoa izan behar dun.

Hodei baten tanketarakoa, kotoizkoa, gustatzen zait!

Ezta gutxiago ere! Hi ere horrelakoa haiz ta. Gu belar motzean zailduta-koak gaitun, azala gogo-

rra dinagu. Zuek, ordea, azala bistara polita duzue, baina hauskorra. «Kras-ka!» Berehala hausten zarete.

Mamitsua dena gustuko duzuela? Nola ba! Zuek esne mamitan hazitakoak zarete, eta hor koxka... egia-egiatan mami gutxi jandakoak zaretela!

Amona baina...

Okindegiko errenkadan aurretik ditudan auzokideek «%80 zikiriozkoa», «zazpi hazitakoa», «integrala» eta «espeltazkoa» eskatu dituzte.

Eguerdi on. 'Fundamentuzko' ogi bat, mesedez.



**OLATZ ARTOLA
APEZTEGIA
KAZETARIA ETA
BIDEOGILEA**

**Mamitsua dena
gustuko duzuela?
Nola ba! Zuek esne
mamitan hazitakoak
zarete, eta hor koxka...
egia-egiatan mami gutxi
jandakoak zaretela!**

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



PRH: pertsonalitatea eta giza-harremanak

29

zenburuaren izen bereko ikastaro bat egiten ari naiz. Nire bizitzarekin zer egin nahi dudana aztertze-ko ikastaroa da. Ez dut ikastaroa zer den esplikatu nahi, zein erabaki hartu ditudan baizik.

Energia handiko pertsona naiz, baina nire esku ez dauden gauzak ere niregain hartzen ditut. Horrek antsietatea sortzen dit, egin nahi ditudan guztiak egitera iristen ez naizelako.

Antsietate horren ondorioz, neure buruari onartzen diodana baino gehiago erretzen ari naiz azken aldian, eta desorekatuta jaten eta edaten. Horrek nire energia gaizki kanalizatzera narama, ez aprobetxatzera. Horregatik, beharrezkoa dudana baino kirol gutxiago egiten dut eta ez naiz ongi sentitzen ez fisikoki ez eta animikoki ere.

Nire bizitza ordenatu beharra daukat. Gauza bakoitzari behar dudana denbora eskaini behar diot, batez ere: kirolari eta ordenari. Ordena bi zen-

tzutan: denbora ordenatua eta inguru ordenatua osatu.

Neure buruari gehiago begiratzen hasteko garaia da, nire esku ez dauden gauzez gutxiago kezkatzeko garaia eta besteekiko harremanetan menpeko izate-tik asertiboago izatera pasatzeko garaia. Beste-ri min ematen badio ere, nire erosotasuna topatu beharra daukat ditudan harreman guztietan.

Asko balio izan dit eta datorren asteburuan, beste hamalau orduz nire barruan sartuko naiz.

Idatzi dudanarekin identifikatuta sentitu ba-

zara eta PRHz gehiago jakin nahi baduzu, deitu ATARIA-ra eta nire kontaktua pasatzeko eskatu. Gustu handiz kontaktuko dizut nik jasotakoa eta baliagarria izango zaizula uste baduzu, badakizu, zuk ere aukera duzunean, egizu ikastaroa.

Hartu barrua entzuteko tarte eta hautatu zure zoriontasunaren bidea. Muxu ta estutu mordoa denoi.



IMANOL ARTOLA
ARRETXE 'FELIX'
FILOSOFOA ETA
ANTZETZLEA

Nire bizitza ordenatu beharra daukat. Gauza bakoitzari behar dudana denbora eskaini behar diot, batez ere: kirolari eta ordenari. Ordena bi zentzutan: denbora ordenatua eta inguru ordenatua osatu.

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro motelak jarraipena izango du. Zeru oso estalita mantenduko zaigu eta euri pixka bat izango dugu. Goizean zer edo zer bustiko du baina oso gutxi botako du eta arratsaldearen orduak gehienetan ateri mantenduko da, nahiz hegoaldeko zaparradaren bat irits daitekeen azken orduetan, penintsularen hego-ekialdean dagoen ezegonkortasunaren ondorioz. Haizeak ipar-mendebaldeko joko du eta tenperaturak antzeko balioetan: 18-20°.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Motel hasiko dugu eguna, baina hoberanzko bidea hartuko du. Goizean izango dugu hodeitzarik handiena eta orduan euri txiki moduan zaparradaxkaren bat edo beste izan dezakegu. Hala ere oso oso gutxi. Eguerditik aurrera, ipar-ekialdeko haizeari esker hodeitza saretzen hasiko da, erabat ateri mantenduko da eta giro argiagoa izango dugu. Tenperatura 20-22 graduren bueltan.

IGANDEA

Giro argia eta oso sana. Goizean behe-laino itxi xamarra agertuko da, baina goizak aurrera egin ahala jaso eta giro eguzkitsua geratuko zaigu. Arratsalde partean hodei batzuk ikusiko ditugu, baina hauek ez diote eguzkiari trabarik egingo eta giro oso atseginaz gozatzeko aukera izango da. Haizeak ipar-ekialdeko ukitua izaten jarraituko du eta tenperaturak koskatxo bat gora egingo du, eguneko erdiko orduetan 21-23 graduak harrapatuz.

OSTIRALA
19



IGANDEA
21



LARUNBATA
20



ASTELEHENA
22



IRAGARKI LABURRAK



SALGAI

Etxebizitza. Iruran etxebizitza salgai (erdialdean). 68 metro koadro, bi logela, trastelekua... guztia kanpoalderuntz. Altzariekin ematen da. Interesatuak deitu 696953231 telefono zenbakira.

OHARRA

Oporrak. Oporrak: Urriaren 15etik urriaren 31era itxita egongo da Zizurkilgo iriarte jatetxea. Azaroaren 1ean irekiko da berriro.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



URRIAK 19, OSTIRALA

IBARRA
Egunekoa. Mujika, M.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

URRIAK 20, LARUNBATA

TOLOSA
Egunekoa. Azpiroz, L.
Amaroz auzunea, 9.
Telefonoa: 943 67 51 18.

URRIAK 21, IGANDEA

IBARRA
Egunekoa. Mujika, M.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

URRIAK 22, ASTELEHENA

TOLOSA
Egunekoa. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpene, solasaldi politikoa Eneko Mairoz (EH Bildu) eta Begoña Tolosarekin (EAJ), Tolosako azokaren tarte, Alain Rekondoren zinema eta telesail gomendioak eta Galtzaundiren *Hitzez Hitz* Igor Agirrerekin.
11:00. Hamaiketako. Ibaraldeko berriak Rebeka Calvo kazetariaren eskutik.
12:00. Entzuteko jaloak.
16:00. Zebrabidea.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Mingaina txulora. Erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

LARUNBATA

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.
21:00. Playback Ataria. Adriana Gaultierrekin.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldiaren iragarpene, asteburuko errepasoa, Aitor Mendiluze *kale kantoitik*, Idoia Apaolaza psikopedagogo eta bidaiariaren tarte.
16:00. Zebrabidea.
11:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondo eta Anoetaldeko berriak, Jon Mirandarekin.
12:00. Entzuteko jaloak.
18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:00. Bidegurutzeta.
22:30. Platopic.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.



Helbide berria Tolosan

TOLOSA • Rondilla,6 • 943 675 999
IRUN • Jose Eguino, 2-1A • 93 612 831

- ✓ Implanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Hortzetako estetika
- ✓ Protesien laborategia
- ✓ PADI-Osakidetza
- ✓ Invisalign

**Zure hortzetako osasuna
esku hoberenetan**

www.clinicabinai.com

Manttale

Haurrentzako oinetako denda



Korreio kalea, 50
Tolosa
943 259 914
manttale@manttale.eus





KATILUA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA _____

8 EURO

4 EURO

10 EURO

ATARIKIDIAK

10 EURO

6 EURO

14 EURO

BESTIAK

ESKURATU ZUREA ATARIAREN BULEGOAN
SAN ESTEBAN 20, TOLOSA